## ARAUDI OROKORRA

## BIZKAIKO SASKIBALOI FEDERAZIOA

## REGLAMENTO GENERAL

## FEDERACIÓN VIZCAÍNA DE BALONCESTO

**1. artikulua**

Bizkaiko Saskibaloi Federazioa erakunde pribatua da, irabazteko asmorik gabea eta izaera juridikoduna. Berari dagozkion eskudantziez gain, izaera administratiboko betekizun publikoak ere egiten ditu, eta hainbat kolektibo biltzen ditu: kirolariak, teknikariak (entrenatzaileak), epaileak (arbitroak eta laguntzaileak), klubak edo kirol elkarteak, eta saskibaloia sustatzen edo jokatzen duten beste kolektibo batzuk.

**Artículo 1**

La Federación Vizcaína de Baloncesto es una entidad privada, sin ánimo de lucro y con personalidad jurídica, que ejerce, además de sus propias atribuciones, funciones públicas de carácter administrativo y reúne a deportistas, técnicos y técnicas (entrenadores), jueces y juezas (árbitros y auxiliares), clubes o agrupaciones deportivas y otros colectivos dedicados a la promoción o práctica del baloncesto.

**2. artikulua**

Bizkaiko Saskibaloi Federazioaren Araudi Orokorra da federazioaren estatutuak garatzeko oinarrizko araua. Araudi horretan hainbat alderdi arautzen dira: federazioaren jurisdikzioaren mende dauden pertsona eta erakundeen estatutua; federazioan sartzea eta lizentziak; administrazio organoak, ordezkaritzakoak eta teknikoak; diziplina-erregimena; estatutu pertsonalak lehiaketa berezietarako oinarriak (antolatzen diren lehiaketak arautzeko); batzarretarako prozedura eta dopinaren kontrola.

**Artículo 2**

El Reglamento General de la Federación Vizcaína de Baloncesto es la norma básica de desarrollo de los Estatutos de la misma. En el mismo se regula el estatuto de las personas y entidades sometidas a la jurisdicción de la Federación, la integración federativa y licencias, los órganos de administración, de representación y técnicos, el régimen disciplinario, los estatutos personales y las Bases de Competiciones específicas por las que se regirán las que se organicen, el procedimiento para Asambleas y el Control de Dopaje.

**3. artikulua**

Bizkaiko Saskibaloi Federazioaren eskumen-esparruaren barruan jarduten duten guztiek nahitaez bete behar dute araudi orokorra.

**Artículo 3**

El Reglamento es norma de obligado cumplimiento para todas aquellas personas que actúan dentro del ámbito de competencias de la Federación Vizcaína de Baloncesto.

**4. artikulua**

Kirolari buruzko Legearen eta Federazioei buruzko Dekretuaren arabera, Bizkaiko Federazioari dagozkio, batetik, bere lurraldearen eremuan kirol jarduera eta lehiaketa ofizialak sustatu, kalifikatu, baimendu, agindu eta antolatzea, eta, bigarrenik, besteak beste, honako betekizun hauek:

a.- Bizkaiko Lurralde Historikoan saskibaloiaren ordezkari izatea.

b.- Bizkaiko Lurralde Historikoan autonomia-

**Artículo 4**

A la Federación Vizcaína de conformidad con la Ley del Deporte y el Decreto de Federaciones le corresponde impulsar, calificar, autorizar, ordenar y organizar las actividades y competiciones deportivas oficiales de ámbito Territorial y, entre otras, las funciones siguientes:

a.- Ostentar la representación del deporte de baloncesto en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia.

b.- Organizar competiciones oficiales y

erkidegoko lehiaketa ofizialak eta kirol jarduerak antolatzea.
c.- Berari dagozkion lehiaketak eta horietarako parte hartze arauak ezartzea, nahiz eta, kasuan-kasuan, lurralde eremu handiagoko federazioek emaniko arauak berdin-berdin beteko diren.
d.- Bere estamentu guztiek lurraldeko eta autonomia-erkidegoko lehiaketetan parte har dezatela bideratzea.
e.- Bizkaiko kirol lizentziak bideratzea.

f.- Saskibaloi jardueretan sortzen diren arazoak aztertu eta ebaztea, nahiz eta epaile eta ebazpen organoek ere arlo horretan eskumenak izan.

g.- Araudia betetzen dela zaintzea eta arau horien arabera zigortzeko duen ahalmena erabiltzea.
h.- Administrazioari laguntzea kirolean debekatuta dauden osagai eta talde farmakologikoak bai eta arauz kanpoko metodoak erabili ez daitezen aurrez neurriak hartzen, kontrolatzen eta halakoak zigortzen, horretarako ematen diren arauen arabera.
i.- Teknikariak eta epaileak trebatzea, horretarako zehazten diren arauen arabera.
j.- Federazioaren beraren diru baliabideen erabilera eta esleipena ezartzea, bere jarduera garatzeko beste erakunde batzuek ematen dizkioten baliabideak kudeatzea eta baliabide guztiak zuzen erabiltzen direla zaintzea.
k.- Kirol klub eta elkarteei ematen zaizkien diru-laguntzak esleitzea eta horien erabilera kontrolatzea.

l.- Bizkaiko administrazioarekin batera lan egitea kirola sustatzeko helburuak lortzeko eta, batez ere, Legeak zuzen-zuzenean federazioei ematen dizkien koordinazio, kooperazio eta aholkularitza betekizunetan.
m.- Federazioaren beraren estatutuak eta araudiak egitea.
n.- Saskibaloian emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea eta, ahal den neurrian, bermatzea.
o.- Eta, oro har, saskibaloia sustatu eta hobetzeko egoki den guztia agintzea.

**5. artikulua**

Bizkaiko Saskibaloi Federazioari dagozkio, batetik, bere lurraldearen eremuan kirol jarduera eta lehiaketa ofizialak sustatu, kalifikatu, baimendu, agindu eta antolatzea,

actividades de ámbito comunitario en el Territorio Histórico de Bizkaia.
c.- Establecer las normas de participación y competiciones propias, sin perjuicio, en su caso, de las normas dictadas por federaciones de ámbito territorial superior.

d.- Instrumentar la participación de todos sus estamentos en competiciones territoriales y autonómicas.
e.- Tramitar las licencias federativas en Bizkaia.
f.- Conocer y resolver los conflictos que se originen en el desarrollo de las actividades de baloncesto, sin perjuicio de la competencia de los órganos judiciales y arbitrales.
g.- Velar por el cumplimiento de las normas reglamentarias y ejercer la potestad disciplinaria con arreglo a las mismas.
h.- Colaborar con la administración en la prevención, control y represión del uso de sustancias y grupos farmacológicos prohibidos y métodos no reglamentarios en el deporte, conforme a la normativa que al efecto se determine.

i.- Formar las y los técnicos y jueces conforme a las normas que al efecto se determinen.
j.- Establecer el destino y la asignación de los recursos económicos propios, gestionar los recursos que le transfieran otras entidades para el desarrollo de su actividad, y controlar la correcta aplicación de todos los recursos.
k.- Asignar y controlar la aplicación de las subvenciones que se puedan conceder, a los clubes y agrupaciones deportivas.

l.- Colaborar con las administración de Bizkaia en el cumplimiento de sus fines de promoción deportiva, y, en particular, en aquellas funciones de coordinación, cooperación y asesoramiento que la Ley atribuye directamente a las federaciones.
m.- Elaborar sus estatutos y reglamentos.

n.- Promover y, en la medida de lo posible, garantizar, la igualdad de mujeres y hombres en la práctica del baloncesto.
o.- Y, en general, disponer cuanto convenga para la promoción y mejora del baloncesto.

**Artículo 5**

A la Federación Vizcaína de Baloncesto les corresponde impulsar, calificar, autorizar, ordenar y organizar las actividades y competiciones deportivas oficiales de ámbito

eta, bigarrenik, besteak beste, honako betekizun hauek:

a.- Bere lurraldeko kirol jarduera federatua antolatzea.
b.- Berari dagokion lurralde historikoan lehiaketa ofizialak eta jarduerak antolatzea.
c.- Berari dagozkion lehiaketa eta parte hartze arauak ezartzea, nahiz eta, kasuan-kasuan, lurralde eremu handiagoko federazioek emaniko arauak berdin-berdin beteko diren.
d.- Berari dagokion kirolaren ordezkari izatea autonomia-erkidegoan eta bere estamentu guztiek esparru horretako lehiaketetan parte har dezatela bideratzea.
e.- Federazio-lizentziak izapidetzea Euskal Federazioak lizentziok eman ditzan, bigarren horrek ezarritako baldintza eta prozeduren arabera.
f.- Saskibaloi jardueretan sortzen diren arazoak aztertu eta ebaztea, nahiz eta epaile eta ebazpen organoek ere arlo horretan eskumenak izan.

g.- Araudia betetzen dela zaintzea eta arau horien arabera zigortzeko duen ahalmena erabiltzea.
h.- Euskal Federazioari laguntzea kirolean debekatuta dauden osagai eta talde farmakologikoak bai eta arauz kanpoko metodoak erabili ez daitezen aurrez neurriak hartzen, kontrolatzen eta halakoak zigortzen, horretarako ematen diren arauen arabera.
i.- Euskal Federazioari laguntzea saskibaloian jarduten duten teknikariak eta epaileak trebatzeko.

j.- Federazioaren beraren diru baliabideen erabilera eta esleipena ezartzea, bere jarduera garatzeko beste erakunde batzuek ematen dizkioten baliabideak kudeatzea eta baliabide guztiak zuzen erabiltzen direla zaintzea.
k.- Bizkaiko Federazioari atxikitako kirol klub eta elkarteei ematen zaizkien diru-laguntzak esleitzea eta horien erabilera kontrolatzea.

l.- Euskadiko administrazioekin batera lan egitea kirola sustatzeko helburuak lortzeko eta, batez ere, Legeak zuzen-zuzenean federazioei ematen dizkien kooperazio eta aholkularitza betekizunetan.
m.- Federazioaren beraren estatutuak eta araudiak egitea.
n.- Saskibaloian emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea eta, ahal den neurrian, bermatzea.

Territorial y entre otras, las funciones siguientes:

a.- Organizar la actividad deportiva federada en su ámbito territorial.
b.- Organizar competiciones oficiales y actividades en su respectivo territorio histórico.
c.- Establecer sus propias normas de participación y competición, sin perjuicio, de la aplicación, en su caso, de las normas dictadas por federaciones de ámbito territorial superior.
d.- Ostentar la representación de su modalidad deportiva en el ámbito autonómico e instrumentar la participación de todos sus estamentos en competiciones de dicho ámbito.
e.- Tramitar las licencias federativas para su expedición por la Federación Vasca, conforme a los requisitos y procedimientos establecidos por ésta.
f.- Conocer y resolver los conflictos que se originen en el desarrollo de las actividades de baloncesto, sin perjuicio de la competencia de los órganos judiciales y arbitrales.

g.- Velar por el cumplimiento de las normas reglamentarias y ejercer la potestad disciplinaria con arreglo a las mismas.
h.- Colaborar con la Federación Vasca en la prevención, control y represión del uso de sustancias y grupos farmacológicos prohibidos y métodos no reglamentarios en el deporte, conforme a la normativa que al efecto se determine.
i.- Colaborar con la Federación Vasca en la formación de las y los técnicos y jueces que desarrollan su actividad en el baloncesto.

j.- Establecer el destino y la asignación de los recursos económicos propios, gestionar los recursos que les transfieran otras entidades para el desarrollo de su actividad, y controlar la correcta aplicación de todos los recursos.

k.- Asignar y controlar la aplicación de las subvenciones que concedan a los clubes y agrupaciones deportivas adscritos a ella.

l.- Colaborar con las administraciones del País Vasco en el cumplimiento de sus fines de promoción deportiva, y, en particular, en aquellas funciones de cooperación y asesoramiento que la Ley atribuye directamente a las federaciones.
m.- Elaborar sus estatutos y reglamentos.
n.- Promover y, en la medida de lo posible, garantizar, la igualdad de mujeres y hombres en la práctica del baloncesto.

o.- Eta, oro har, saskibaloia sustatu eta hobetzeko egoki den guztia agintzea.

**6. artikulua**

Aurreko artikuluetan adierazi den legez, Bizkaiko Federazioari dagokio saskibaloiaren arloko kirol federatuaren ordezkaritza Bizkaiko Lurralde Historikoan.

Bizkaiko Saskibaloi Federazioak Euskal Federazioaren barruan egon behar du.

**7. artikulua**

Beste betekizun batzuez gain, Bizkaiko Federazioak izaera administratiboko beste betekizun publiko batzuk ere baditu, eta kasu bakoitzari dagokion administrazioaren laguntzaile gisa jokatzen du.

Kasu bakoitzean dagokion administrazioaren irizpidearen, babesaren eta kontrolaren pean, kirol federazio horiek izaera administratiboko funtzio publiko hauek betetzen dituzte, euren esku utzi baituzte:

a.- Lehiaketa ofizialak kalifikatu, arautu, antolatu eta baimentzea.
b.- Bizkaiko kirolaren ordezkaritza arautzea Bizkaiko Lurralde Historikoko lehiaketetan.

c.- Federazioaren lizentziak izapidetzea.
d.- Kirol jardunean indarkeriarik ez egoteko neurriak hartzea, kontrolatzea eta, halakorik denean, zigorrak jartzea.
e.- Dopinaren kontrako neurriak hartzea, kontrolatzea eta zigortzea.
f.- Kirol arloan zigorrak ezartzeko ahalmena erabiltzea.
g.- Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpenak betetzea.
h.- Bere estatutuak eta araudiak onartzea.

i.- Herri Administrazioari laguntzea haren kirol programetan, eta horietan parte hartzea; bereziki honako hauetan: goi mailako kirolarientzako programetan, eskola kiroleko programetan, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzeko programetan eta administrazio publikoak antolatzen dituen eta interes orokorrekoak diren programetan.
j.- Federazioko hauteskunde prozesuak kontrolatzea.

Euren esku utzi dituzten betekizun publikoak

o.- Y, en general, disponer cuanto convenga para la promoción y mejora del baloncesto.

**Artículo 6**

Tal y como se señala en artículos anteriores, la Federación Vizcaína ostenta la representación del deporte federado en la modalidad de Baloncesto en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia.
Las Federación Vizcaína de Baloncesto, deberá integrarse en la Federación Vasca.

**Artículo 7**

Además de otras funciones, la Federación Vizcaína, ejerce funciones públicas de carácter administrativo, actuando como agentes colaboradores de la Administración correspondiente.

Bajo los criterios, tutela y control de la Administración correspondiente, dichas federaciones deportivas ejercen, por delegación, las siguientes funciones públicas de carácter administrativo:

a.- La calificación, ordenación, organización y autorización de las competencias oficiales.
b.- La ordenación de la representación del deporte vizcaíno en las competencias del Territorio Histórico de Bizkaia.
c.- La tramitación de las licencias federativas.
d.- La prevención, control y sanción de la violencia en la práctica del deporte.

e.- La prevención, control y sanción del dopaje.
f.- El ejercicio de la potestad disciplinaria deportiva.

g.- La ejecución de las resoluciones del Comité Vasco de Justicia Deportiva.
h.- La aprobación de sus estatutos y reglamentos.
i.- La participación y colaboración con la Administración pública en el desarrollo de sus programas deportivos, en especial en los programas para deportistas de alto nivel, en los programas de deporte escolar, en los programas de promoción de igualdad de hombres y mujeres y en aquellos programas de interés general que organice aquella.

j.- El control de los procesos electorales federativos.

Los actos que se dicten por las federaciones

gauzatzean kirol federazioek emaniko egintzak administrazio prozedura arrunta arautzen duten arauak inspiratu dituzten oinarriei egokitu behar zaizkie.

deportivas en el ejercicio de las funciones públicas delegadas se ajustarán a los principios inspiradores de las normas reguladoras del procedimiento administrativo común.

Aurreko programan adierazitako egintzen kontra errekurtsoa aurkez daiteke horretarako egoki den Lurralde Historikoko edo Eusko Jaurlaritzako organoaren aurrean, eta organo horren ebazpenak administrazio bidea agortuko du. Errekurtso horren araudia gora jotzeko errekurtsoari azaroaren 26ko 30/1992 Legean, administrazio prozedurari buruzkoan, ezarritako bera izango. Horretan, salbuespena izango dira Kirol Justiziako Euskal Batzordeari aztertzea dagozkion errekurtsoak.

Los actos señalados en el programa anterior son susceptibles de recurso ante el órgano correspondiente del Territorio Histórico o del Gobierno Vasco, cuya resolución agotará la vía administrativa. Tal recurso tendrá el régimen establecido para el recurso de alzada en la Ley de procedimiento administrativo 30/1992, de 26 de noviembre, a excepción de aquellos recursos cuyo conocimiento corresponde al Comité Vasco de Justicia Deportiva.

Betekizun publikoak egoki egiteko, eskumena duen kirol administrazioak bere esku duen aholkularitza teknikoa eskainiko dio federazioari.

Para el adecuado ejercicio de las funciones públicas, la Administración deportiva competente ofrecerá a la Federación el asesoramiento técnico de que disponga.

Bizkaiko Saskibaloi Federazioak Bizkaiko Lurralde Historikoko foru organoarekin batera egingo ditu bere betekizunak. Horretarako, lankidetza hitzarmenak egin ahal izango dituzte elkarrekin , helburuak, kirol programak, aurrekontuak eta eskuordeturiko funtzio publikoei zuzenean loturiko gainerako alderdiak zehazteko. Hitzarmen horiek izaera juridiko-administratiboa izango dute.

Las Federación Vizcaína de Baloncesto desarrollará sus funciones con el órgano Foral del Territorio Histórico de Bizkaia. A tal efecto, podrán suscribir entre sí convenios de colaboración al objeto de determinar los objetivos, programas deportivos, presupuestos y demás aspectos directamente relacionados con las funciones públicas delegadas. Tales convenios tendrán naturaleza jurídico-administrativa.

Horrez gain, Bizkaiko Saskibaloi Federazioak programa-kontratuak sinatu ahalko ditu herri administrazioekin. Kontratu horietan, gutxienez, honako alderdi hauek jasoko dira: administrazioen finantziazio-aurreikuspenak, lortu nahi diren helburu zehatz eta zenbakarriak, bai eta helburu horiek ebaluatu eta ikuskatzeko moduak ere.

La Federación Vizcaína de Baloncesto también podrá suscribir con las administraciones públicas correspondientes contratos-programa en los que se incluirán, como mínimo, las previsiones de financiación de aquellas, los objetivos concretos o cuantificables a alcanzar así como los mecanismos para evaluación y auditoría de dichos objetivos.

**8. artikulua**

**Artículo 8**

Kirol federazioek ezingo dute, inolaz ere, euren esku utzitako betekizun publikoak egite beste inoren esku utzi, dagokion administrazioak ez badu horretarako baimenik ematen. Baimen hori bakarrik eman ahalko da, euren izaeragatik, besteen esku utzi daitezkeen betekizunetarako.

En ningún caso, las federaciones deportivas podrán delegar, sin la autorización administrativa correspondiente, el ejercicio de las funciones públicas que le han sido delegadas. La autorización sólo podrá concederse en relación con aquellas funciones que, por su propia naturaleza, sean susceptibles de delegación.

**9. artikulua**

**Artículo 9**

1471998 Legeak eta Federazioei buruzko Dekretuak ematen dizkien betekizunak

La resolución de los conflictos que se susciten entre las federaciones deportivas en el ejercicio

egitean, kirol federazioen artean sortzen diren arazoak Kirol Justiziako Euskal Batzordeak ebatziko ditu.

Kirol federazioei emaniko betekizun publikoak gauzatzen arazoaren bat sortzen denean, interesa duen kirol federazioak Kirol Justiziako Euskal Batzordeari eskatu beharko dio arazoaren gaineko ebazpena eman dezala. Guztiek hartutako akordioz edo bere estatutuetan hala agertzen delako, euskal federazioen epaimahaipean jartzen ez badira.

de las funciones que les atribuye la Ley 14/1998 y el Decreto de Federaciones, se resolverán por el Comité Vasco de Justicia Deportiva.

Cuando se produzca algún conflicto relacionado con el ejercicio de funciones públicas delegadas entre federaciones deportivas, la federación deportiva interesada deberá solicitar al Comité Vasco de Justicia Deportiva la resolución del conflicto. Salvo que de común acuerdo o en sus estatutos se sometan al tribunal de arbitraje de federaciones vascas

**10. artikulua**

Bizkaiko Saskibaloi Federazioak ahalmena du, bere izenean, erakunde publiko eta pribatuekin lankidetza hitzarmenak sinatzeko, akordioak egiteko eta elkartzeko, federazioaren beraren helburuak eta jarduerak gauzatu ahal izateko. Hala ere, halakorik egin aurretik Batzar Nagusiak erabakia onartu behar du.

Sinatzen diren erabaki eta hitzarmenetan, bereziki begiratuko da horiek euskal administrazio publikoekin formalizatzen direla, horrela saskibaloia sustatu eta hobetu dadin Bizkaiko Lurralde Historikoan.

**Artículo 10**

La Federación Vizcaína de Baloncesto podrá suscribir convenios de colaboración, establecer acuerdos y asociarse, en su propio nombre, con entidades públicas y privadas para el cumplimiento de sus fines y actividades propias, previo acuerdo de la Asamblea General.

Dentro de los acuerdos y convenios a suscribir se estará de manera especial a su formalización con las Administraciones Públicas Vascas para contribuir a la promoción y mejora del Baloncesto en el Territorio Histórico de Bizkaia.

## BIGARREN TITULUA

## FEDERAZIOAN SARTZEA.- LIZENTZIAK

**11. artikulua**

Bizkaiko Saskibaloi Federazioak federazio-lizentzien agiri, kirol eta diru erregimenari buruzko araudi bat emango du. Horrela, urtarrilaren 31n emaniko 16/2006 Dekretuko 24.2 artikulua garatuko du. Euskadiko Kirol Federazioei buruzko Dekretuko artikulu horretan xedatutakoa betetzeko, araudi horretan eta titulu honetan jaso diren garatze arauetan, Bizkaiko Saskibaloi Federazioak federazio-lizentzien agiri, kirol eta diru erregimena arautuko du.

## TITULO SEGUNDO

## INTEGRACION FEDERATIVA.- LICENCIAS

**Artículo 11**

La Federación Vizcaína de Baloncesto regulará un Reglamento de régimen documental, deportivo y económico de las licencias federativas como desarrollo normativo del art. 24.2 del Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del País Vasco, de tal forma que en cumplimiento de lo dispuesto en el antedicho precepto legal, la Federación Vizcaína de Baloncesto regulará en dicho reglamento y en las normas de desarrollo contenidas en el presente Titulo el régimen documental, deportivo y económico de las licencias federativas.

### LEHENENGO KAPITULUA: LIZENTZIAK

**12. artikulua**

Federazioaren lizentzia agiri pertsonala eta besterenezina da, eta adierazten du haren

### CAPITULO PRIMERO: LICENCIAS

**Artículo 12**

La licencia federativa es el documento de carácter personal e intransferible que otorga a

jabea Bizkaiko eta Euskadiko saskibaloi federazioetako kidea dela. Horrez gain, lizentziaren jabea gai da lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, honako lege testu hauetan ezarritako arauen arabera: Eusko Jaurlaritzaren Kirolari buruzko Legean, Euskadiko Kirol Federazioei buruzko Dekretuan, federazioaren estatutuetan eta araudi honetan.

su titular la condición de miembro de las Federaciones Vizcaína y Vasca de Baloncesto y le habilita para participar en sus competiciones oficiales, con arreglo a las reglas que se establecen en La Ley del Deporte del Gobierno Vasco, Decreto de las federaciones deportivas del País Vasco, Estatutos de la Federación y en el presente Reglamento.

Estamentu guztiek izan beharko dute federazioaren lizentzia bai Euskadiko Saskibaloi Federazioak bai Bizkaiko Federazioak antolatzen dituzten lehiaketa ofizialetan parte hartu ahal izateko. Berdin izan beharko du lurraldeaz gaindiko izaera duen beste edozein erakundek antolatutakoetan ere.

Todos los estamentos deberán estar en posesión de la licencia federativa como requisito indispensable para poder participar en competiciones oficiales organizadas tanto por la Federación Vasca de Baloncesto y la Federación Vizcaína, como por cualquier otro organismo de índole supraterritorial

**13. artikulua**

Euskal Autonomia Erkidegoan, Euskadiko Saskibaloi Federazioak du kirol horretako lizentziak emateko eskumena eta lurraldeetako federazioek, berriz, lizentzia horiek izapidetzekoa.

Euskal Autonomia Erkidegoan federazioaren lizentzia bakarra izango da, eta horren jabea Euskadiko Federaziari eta Bizkaikoari atxikia egongo da.

Pertsona fisikoak eta juridikoak federazioan sartzeko, dagokien lizentzia eskuratu behar dute.

Indarreko legeetan ezarritakoaren arabera, lizentzietan honako datu hauek jaso behar dira:

Kirolariaren nahitaezko asegurua.
Euskadiko Federazioaren kuota
Bizkaiko Federazioaren kuota
Espainiako Saskibaloi Federazioaren kuota, hala behar denean.

**Artículo 13**

La Federación Vasca de Baloncesto es la entidad competente en la Comunidad Autónoma del País Vasco para emitir las licencias federativas de su modalidad deportiva y las federaciones territoriales serán las entidades competentes para tramitarlas.

La licencia federativa será única en el País Vasco y supondrá la doble adscripción de su titular a la Federación Vasca y a la Federación Vizcaína.

La integración de las personas físicas y jurídicas se produce mediante la obtención de la correspondiente licencia.

De conformidad con lo establecido por la legislación vigente en las licencias deberán constar igualmente los siguientes datos.

Seguro obligatorio del deportista.
Cuota para la Federación Vasca
Cuota para la Federación Vizcaína
Cuota para la F.E.B., cuando proceda.

## BIGARREN KAPITULUA: LIZENTZIA MOTAK.

**14. artikulua**

Honako estamentu hauetarako lizentziak ezarri dira:

a.- Jokalariak.
b.- Teknikariak.
c.- Epaile edo arbitroak.

## CAPITULO SEGUNDO: CLASE DE LICENCIAS.

**Artículo 14**

Las licencias quedan establecidas para los siguientes estamentos:

a.- Jugadores/as.
b.- Técnicos/as
c.- Jueces/zas o árbitros

d.- Ordezkariak.
e.- Kirol klub eta elkarteak.

d.- Delegados/as.
e.- Clubes y Agrupaciones Deportivas

## HIRUGARREN KAPITULUA: AGIRI ERREGIMENA

### 15. artikulua

Lizentzia izapidetu ahal izateko, eskabidea aurkeztean nahitaez aurkeztu behar dira honako agiri hauek:

a.- Ekipoarentzako triptikoa edo banakako alta adierazpena.
b.- Banakako baja adierazpena eta lizentzia (hala dagokionean).
c.- Lizentzia eskabidea eta saskibaloian jokatu ahal izateko mediku agiria
d.- Saskibaloian jolasteko gaitasuna egiaztatzen duen banakako mediku agiria edo talde guztiarentzako agiria.
e.- Talde baten baja gutuna (hala dagokionean).
f.- Adingabeen kasuan, gurasoen baimena.
g.- Lizentzia batekin saskibaloian jardun ez izanaren zinpeko adierazpena.
h.- Azken denboraldian lizentzia batekin saskibaloian jardun ez izanaren zinpeko adierazpena.
i.- NANa edo pasaportea.
j.- Argazki bat, txarteletarako neurrikoa.

Federazioaren lizentzia izapidetzeko, nahitaez egiaztatu behar da saskibaloian jokatu ahal izateko mediku azterketa egin eta agiria eskuratu dela. Mediku azterketa hori lizentzia eskatu aurretik eta Euskadiko Saskibaloi Federazioak arautzen duen moduan egingo da.

Bizkaiko Federazioak agiriak jasoko ditu, eta horiek berrikusi eta onetsi ostean, Euskadiko Federazioari bidaliko dizkio. Gero, Euskadikoak datu guztiak prozesatu eta lizentziak emango ditu.

## CAPITULO TERCERO: REGIMEN DOCUMENTAL

### Artículo 15

Para poder tramitar una licencia es obligatorio presentar en el momento de la solicitud, la siguiente documentación:

a.- Tríptico para el equipo ó Parte de alta individualizada.
b.- Parte de baja individualizada y su licencia (cuando proceda).
c.- Solicitud de licencia con certificado médico de aptitud para jugar al baloncesto.
d.- Certificado médico individual o colectivo para todo el equipo, de aptitud para la práctica del baloncesto.
e.- Carta de Baja en un equipo (cuando proceda).
f.- Autorización paterna a menores de edad.
g.- Declaración jurada de no haber practicado baloncesto con licencia.
h.- Declaración jurada de no haber practicado baloncesto con licencia en la última temporada.
i.- D. N .I. ó pasaporte individual
j.- Una fotografía tamaño carnet.

Para tramitar la licencia federativa será preciso acreditar la obtención del correspondiente certificado de reconocimiento médico de aptitud para la práctica del baloncesto, que será previo a la solicitud en los términos que reglamentariamente determine la Federación Vasca de Baloncesto.

La Federación Vizcaína recibirá la documentación y una vez revisada y conformada la tramitará a la Federación Vasca, que una vez procesados todos los datos correspondientes emitirá las licencias.

## LAUGARREN KAPITULUA: KIROL ERREGIMENA

### 16. artikulua

Lizentziak ematen den egunetik dagokion denboraldia bukatu arte izango du balioa.

## CAPITULO CUARTO: REGIMEN DEPORTIVO

### Artículo 16

La validez de la licencia queda establecida desde la fecha de concesión y hasta finalizar la temporada de que se trate.

**BOSGARREN KAPITULUA: ERREGIMEN EKONOMIKOA**

**17. artikulua**

Kirolari buruzko Legeak honako hau ezartzen du lizentziaren zenbatekoaren gainean: nahitaezko asegurua kenduta, bai Euskadiko Federazioari bai dagokion lurraldekoari lizentziaren kostuaren % 35 dagokie gutxienez.
Gainerako % 30a Euskadiko Federazioaren eta lurraldetako federazioen artean banatuko dute, Euskadiko Federazioaren Batzar Nagusiak erabakitzen duenaren arabera.

Euskadiko Federazioaren Batzar Nagusiak era guztietako lizentzien kuotak onartu behar ditu, eta kuota horiek Batzarrak berak denboraldi bakoitzeko lehiaketarako onartzen dituen oinarrietan jasoko dira.

**SEIGARREN KAPITULUA: KIROL ASEGURUA**

**18. artikulua**

Indarrean dagoen araudiak ezartzen du pertsona fisikoen federazio-lizentzia bakoitzak asegurua izan behar duela, gutxienez, honako arrisku hauekiko babesa bermatzeko:

1.- Erantzukizun zibila.
2.- Galera anatomiko edo funtzionalen, edo heriotzaren ondoriozko kalte-ordainak.
3.- Osasun laguntza, osasun sistema publikoak babes hori dohainik ematen ez duen kasuetan, eta lizentziaren jabeak ez dituenean halabeharrak beste asegururen batekin babestuta.

Aurreko atalean adierazitako aseguruaren zerbitzuek ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuan (federazioen lehiaketetarako nahitaezko kirol aseguruaren gutxieneko zerbitzuak zehaztu zituena) edo dekretu hau garatzean ezarritakoak izan behar dute gutxienez.

Halaber, Euskal Federazioari dagokio (Eusko Jaurlaritzak haren esku utzi baitu betekizun publiko hori) gorago aipatu den aseguru kolektiboaren polizak kontratatu eta sinatzea, eta aseguruaren beraren baldintzak ezartzea. Aseguru horrek hiru lurralde historikoetako

**CAPITULO QUINTO: REGIMEN ECONOMICO**

**Artículo 17**

La Ley del Deporte establece que del importe de la licencia, una vez deducido el Seguro obligatorio, tanto a la Federación Vasca como a la Territorial a quien le afecte, les corresponde un mínimo del 35% de su coste.

El 30% restante se repartirá entre la Federación Vasca y las Federaciones Territoriales según acuerde la asamblea General de la Federación Vasca.

Corresponde a la Asamblea General de la Federación Vasca aprobar las cuotas de todo tipo de licencias y que igualmente quedarán reflejadas en las Bases de Competición que para cada temporada sean aprobadas por la Asamblea.

**CAPITULO SEXTO: SEGURO DEPORTIVO**

**Artículo 18**

La normativa vigente establece que cada licencia federativa de personas físicas llevará aparejado un seguro que garantice, como mínimo, la cobertura de los siguientes riesgos:

1.- Responsabilidad civil
2.- Indemnización por supuestos de pérdidas anatómicas o funcionales, o de fallecimiento.
3.- Asistencia sanitaria para aquellos supuestos y ámbitos en que no exista cobertura gratuita del sistema público sanitario cuando la o el titular no tenga cubiertas las contingencias a través de otro seguro

Las prestaciones del seguro señalado en el apartado anterior deberán ser, como mínimo, las establecidas en el Real Decreto 849/1993, de 4 de Junio, por el que se determinan las prestaciones mínimas del Seguro Obligatorio Deportivo para competiciones federadas, o las establecidas en desarrollo del presente Decreto.

Se establece igualmente que es competencia de la Federación Vasca, como función pública, delegada del Gobierno Vasco, la contratación y firma de las pólizas de contrato de los seguros colectivos obligatorios antedichos, válida para los deportistas de los tres Territorios Históricos,

kirolarientzat balio du, eta horren kopia bat Eusko Jaurlaritzari igorri behar zaio.

cuya copia deberá remitirse al mencionado Gobierno al inicio de cada temporada, así como de las condiciones del mismo.

Bai Euskadiko Federazioak nola Bizkaiko Federazioak aseguru polizak kontratatu ditzakete, legez edo araudietan ezarritako gutxieneko babesa gainditu arren, aurrean aipatutakoak osatzeko. Edonola ere, poliza horiek borondatezkoak izango dira eta horiek kontratatzeko erabakia federazio bakoitzeko Batzar Nagusiak hartu beharko du.

Tanto la Federación Vasca como Federación Vizcaína podrán suscribir pólizas de seguros que, excediendo las coberturas mínimas establecidas legal o reglamentariamente, complemente estas. En todo caso, estas pólizas tendrán naturaleza voluntaria y el acuerdo de su contratación deberá adoptarlo la respectiva Asamblea General.

## HIRUGARREN TITULUA

## ADMINISTRAZIO ETA ORDEZKARITZA ORGANOAK.

### LEHENENGO KAPITULUA: ZUZENDARITZA BATZORDEA

## TITULO TERCERO

## ORGANOS DE ADMINISTRACION Y REPRESENTACION.

### CAPITULO PRIMERO: JUNTA DIRECTIVA

**19. artikulua**

Zuzendaritza Batzordea Federazioaren administrazio organoa da eta honi dagozkion gaien kudeaketa administratiboa eta ekonomikoa egiten du. Kudeaketa hori beherago adieraziko diren arauek arabera egin beharko du.

**Artículo 19**

La Junta Directiva es el órgano de administración de la federación y ejerce las funciones de gestión administrativa y económica de los asuntos federativos que deberá desarrollar confirme a las directrices que más adelante se señalan.

**20. artikulua**

Zuzendaritza Batzordeak kide kopuru bakoitia izango du, eta, gutxienez, honako hauek osatua egongo da:

a.- Presidentea, federazioaren presidente ere izango dena.
b.- Presidenteordea; presidentea ez dagoenean edo kargua uzten duenean, presidenteordeak hartuko ditu bere gain haren betekizunak.
c.- Diruzaina.
d.- Gutxienez 4 kide.

Zuzendaritza Batzordeak Federazioko idazkariaren laguntza izango du. Horrek Batzordeak jardungo du: ahotsa izango du baina botorik ez.
Zuzendaritza Batzordeko kargu guztiak ohorezkoak dira, idazkariarena izan ezik: horri ordainsaria eman ahalko zaio.

Zuzendaritza Batzordeko kide guztiek izango dute Batzar Nagusira joatea, baina Batzarreko kide ez badira, ahotsa izango dute baina botorik ez.

**Artículo 20**

La Junta Directiva, que contará con un número impar de miembros, estará compuesta como mínimo por:

a.- Un Presidente/a, que lo será asimismo de la Federación.
b.- Un Vicepresidente/a, que asumirá las funciones del Presidente/a en caso de ausencia temporal o cese de éste.

c.- Un Tesorero o Tesorera
d.- Un mínimo de 4 Vocales.

La Junta Directiva, estará asistida por el o la Secretario de la Federación, que actuará en la Junta Directiva, con voz pero sin voto.

Todos los cargos de la Junta Directiva son honoríficos, excepto el del Secretario, que podrá ser retribuido.

Todos los miembros de la Junta Directiva que no lo sean de la Asamblea General podrán asistir a ésta con voz pero sin voto.

Zuzendaritza Batzordean erabakiak gehienen botoaz hartuko dira, eta berdinketa baldin bada, presidentearen botoa izango da erabakigarri.

Sus decisiones se tomarán por mayoría y en caso de empate decidirá el voto del Presidente o Presidenta.

**21. artikulua**

Zuzendaritza Batzordeak urtean hiru aldiz bildu behar du gutxienez.

**Artículo 21**

La Junta Directiva deberá reunirse, al menos en tres sesiones al año.

**22. artikulua**

Zuzendaritza Batzordearen egitura, inguruabarrak, eskubideak, betebeharrak eta abar Bizkaiko Saskibaloi Federazioaren estatutuetako III. tituluko II. kapituluan jasota daude.

**Artículo 22**

La estructura de la Junta Directiva, así como sus circunstancias, derechos, obligaciones, etc., están recogidos en el Capítulo II del Título III de los Estatutos de la Federación Vizcaína de Baloncesto.

## BIGARREN KAPITULUA: PRESIDENTEA

## CAPITULO SEGUNDO: PRESIDENTE O PRESIDENTA

**23. artikulua**

Presidenteak federazioaren legezko ordezkaritza hartzen du bere gain, Batzar Nagusiak et Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak gauzatzen ditu, bi organo horien bileretan buru izaten da eta biak zuzentzen ditu, eta boto berdinketa gertatuz gero, kalitatezko botoa duenez, erabaki egiten du.

**Artículo 23**

El Presidente o Presidenta de la federación asume la representación legal de la misma, ejecuta los acuerdos adoptados por la Asamblea General, y Junta Directiva, preside y dirige las sesiones que celebran las mismas, y decide, en caso de empate, con su voto de calidad.

**24. artikulua**

Federazioaren presidente karguaren egitura, inguruabarrak, eskubideak, betebeharrak eta abar Bizkaiko Saskibaloi Federazioaren estatutuetako III. kapituluan jasota daude.

**Artículo 24**

La estructura de la figura del Presidente o Presidenta de la federación, así como sus circunstancias, derechos, obligaciones, etc., están recogidas en el Capítulo III de los Estatutos de la Federación Vizcaina de Baloncesto.

## HIRUGARREN KAPITULUA: BESTE ORGANO BATZUK

### Lehenengo Atala: IDAZKARITZA NAGUSIA

## CAPITULO TERCERO: OTROS ORGANOS

### Sección Primera: SECRETARÍA GENERAL

**25. artikulua**

Idazkaritza Nagusia Bizkaiko Saskibaloi Federazioaren administrazio organoa da. Idazkaritzaren buru idazkari nagusia da, federazioaren presidenteak izendatzen duena.

**Artículo 25**

La Secretaría General es el órgano administrativo de la Federación Vizcaína de Baloncesto. Al frente de la Secretaría se hallará un o una Secretario General, nombrado por el Presidente de la Federación.

**26. artikulua**

Idazkari nagusia federazio-organoa da, eta

**Artículo 26**

El o la Secretario General es un órgano

federazioaren antolaketa administratiboa egitea du ardura.

federativo, teniendo a su cargo la organización administrativa de la misma.

**27. artikulua**

Idazkari nagusia beste organo hauetako idazkari ere izango da: Batzar Nagusia, Zuzendaritza Batzordea eta Hauteskunde Batzordea. Federazioko gainerako organoen idazkari ere izango da.

Esku hartzen duen organoetan, hitz egiteko aukera bai baina bozkatzekorik ez du izango. Idazkaria ez baldin badago, presidenteak izendatutako batek ordeztuko du.

**Artículo 27**

El o la Secretario General actuará como Secretario de la Asamblea General, Junta Directiva y de la Junta Electoral. También lo será de los demás Órganos de la Federación.

En los órganos en los cuales actúe tendrá voz pero no voto. En caso de ausencia será sustituido por la persona que designe el Presidente.

**28. artikulua**

Presidenteak beren-beregi ematen dizkion zereginez gain, idazkari nagusiari honako zeregin hauek dagozkio:

a.- Idazkari lana egiten duen organoetako bileren akta egitea.

b.- Organo horiek adosten dituzten egintzen eta erabakien ziurtagiriak egitea, presidenteak ontzat ematen duenean.

c.- Aurreko puntuan aipatu diren erabakiak betetzen direla zaintzea.
d.- Federazioaren erregistro liburuaz eta fitxategiez arduratzea.
e.- Federazioaren estatistikak eta oroitidazkia prestatzea.
f.- Federazioko gai orokorrok ebatzi eta horiei bide ematea.
g.- Hala eskatzen zaionean, aholku ematea presidenteari.
h.- Idazkari lana egiten duen organoen bileretarako beharrezko diren agiriak eta txostenak prestatzea.

i.- Federazioko organoen lanak bete daitezela koordinatzea.
j.- Federazioari eragiten dioten kirol arauak eta arau juridikoak betetzen direla zaintzea. Horretarako, kanpo aholkularitza bilduko ditut, federazioko organoen funtzionamendu egokia izan dadin.
k.- Zuzendaritzako kideei eta federaziko organoei, euren eskumeneko lanetan behar dituzten datuak eta aurrekariak ematea.

l.- Federazioaren jendearekiko harremanak zaintzea.

**Artículo 28**

Sin perjuicio de las misiones que expresamente le señale el Presidente, corresponderá al o la Secretario General:

a.- Levantar acta de las sesiones de los órganos en los cuales, actúa como Secretario.
b.- Expedir las certificaciones oportunas, con el visto bueno del Presidente o Presidenta, de los actos y acuerdos adoptados por dichos órganos.
c.- Velar por el cumplimiento de los acuerdos citados en el punto anterior.
d.- Llevar los libros de registro y los archivos de la Federación.
e.- Preparar las estadísticas y la memoria de la Federación.
f.- Resolver y despachar los asuntos generales de la Federación.
g.- Prestar el asesoramiento oportuno al Presidente o Presidenta en los casos en que fuera requerido para ello.
h.- Preparar la documentación y los informes precisos para las reuniones de los órganos en los que actúa como Secretario.

i.- Coordinar la ejecución de las tareas de los órganos federativos.
j.- Velar por el cumplimiento de las normas jurídico-deportivas que afecten a la actividad de la Federación recabando el asesoramiento externo necesario para la buena marcha de los distintos órganos federativos.
k.- Facilitar a los directivos y directivas y órganos federativos los datos y antecedentes que precisen para los trabajos de su competencia.

l.- Cuidar de las relaciones públicas de la Federación.

m.- Stocka hornitzeaz eta kontrolatzeaz arduratzea.
n.- Federazioaren presidenteak ematen dizkionak.
o.- Gai orokorren ebazpena eta horiei irtenbidea nola eman prestatzea.
p.- Batzar Nagusia eta gobernu organo eta organo tekniko guztien bilerak prestatzea. Bilera horietan hitz egitea izango du, baina bozkatzerik ez. Horrez gain, bilera horien akta egin eta erabaki guztiak betetzen direla begiratuko du.
q.- Federazioaren posta ofiziala jaso eta bidaltzea. Beren-beregi presidenteak edo organo teknikoek sinatu behar ez dituzten agiriak sinatzea.

r.- Federazioaren artxiboa antolatu eta zaintzea.
s.- Ahoz edo idatziz aurkeztea presidenteak eskatzen dituen txostenak.

m.- Cuidar del aprovisionamiento y del control de stocks.
n.- Aquellas que le sean asignadas por el Presidente o Presidenta de la Federación.
o.- Preparar la resolución y despacho de los asuntos generales.
p.- Preparar la Asamblea General y las reuniones de todos los órganos de Gobierno y Técnicos actuando en ellos con voz pero sin voto, levantando Acta y cuidando de la ejecución de todos los acuerdos.
q.- Recibir y expedir la correspondencia oficial de la Federación y firmando aquellos documentos que su firma no esté expresamente atribuida al Presidente o Presidenta, u órganos técnicos.
r.- Organizar y mantener el archivo de la Federación.
s.- Presentar verbalmente o por escrito los informes que sean requeridos por el Presidente o Presidenta.

## Bigarren atala: DIRUZAINTZA

### 29. artikulua

Diruzaintza Bizkaiko Saskibaloi Federazioaren administrazio organoa da.

Batzorde horren buru, diruzain izango da, presidenteak izendatua.

Kargua bete gabe badago, presidenteak federazioko beste organo baten esku utzi ahalko ditu eskumen horiek.

### 30. artikulua

Diruzainari honako betekizun hauek dagozkio:

a.- Federazioaren kontabilitatea egitea eta kontrolatzea.
b.- Kobratzekoak eta ordaintzekoak proposatzea.
c.- Gastuak arautzea, federazioko organo guztien (edozein motatakoen) diru ikuskaritza egitea, eta diziplina neurriak proposatzea saskibaloiaren ekonomi eta finantza jarduera arautzen duten arauak hausten badira.

d.- Gizartearen beharrei erantzuteko behar diren ondasunak eskuratzeko proposamena egitea.
e.- Ebazteko dauden gaien egoeraren berri ematea, eta bere eskumeneko gaietan, federazioa egoki joan dadin beharrezko jotzen

## Sección Segunda: TESORERIA

### Artículo 29

La Tesorería es el órgano de administración de la Federación Vizcaína de Baloncesto.

Al frente de dicho Comité se hallará un Tesorero o Tesorera nombrado por el Presidente o Presidenta.

En caso de vacante, el Presidente o Presidenta podrá delegar dichas competencias en otro órgano de la Federación.

### Artículo 30

Son funciones propias del Tesorero o Tesorera:

a.- Llevar y controlar la contabilidad de la Federación.
b.- Proponer cobros y pagos.

c.- Reglamentar los gastos, ejercer la inspección económica de todos los organismos Federativos de cualquier clase que sean, y proponer las medidas disciplinarias en los casos de infracción de las normas que regulan la vida económica y financiera del Baloncesto.
d.- Proponer la adquisición de los bienes precisos para las necesidades sociales y reglamentar su utilización.
e.- Informar de la situación de los asuntos pendientes y proponer las medidas que considere necesarias para la buena marcha

dituen neurriak proposatzea.
f.- Urteko aurrekontuak prestatzea Batzar Nagusiei aurkezteko.
g.- Bere sinadurarekin eta presidentearenarekin batera, ordainketak eta edozein motatako banku-agiri onartzea.
h.- Diruzainak kontabilitate liburuen ardura izango du, bai eta egoeraren balantzea eta sarrera-gastuen kontuak formalizatzearena ere.
i.- Federazioko sailek arlo ekonomikoan duten jarduna planifikatu eta koordinatzea, eta, horretarako, beharrezko informazioa jasotzen arduradunengandik.

j.- Zuzendaritzako kideei eta federaziko organoei, euren eskumeneko lanetan behar dituzten datuak eta aurrekariak ematea.
k.- Kobratzekoen, gastuen eta ordainketen proposamenak egitea.
l.- Federazioaren beraren diru baliabideen sorrera bideratzea, eta bide horretatik diru-sarrerak jaso daitezela sustatzea.

m.- Bizkaiko Saskibaloi Federazioaren presidenteak ematen dizkion betekizunak.

federativa en materia de su competencia.
f.- Confeccionar los presupuestos anuales para su presentación a la Asamblea General.
g.- Autorizar con su firma junto con la del Presidente los pagos y toda clase de documentos bancarios.
h.- El Tesorero o Tesorera será responsable de los libros de Contabilidad y de la formalización del balance de situación y las cuentas de ingresos y gastos.
i.- Planificar y coordinar la actuación, en materia económica, de los distintos departamentos de la Federación, recabando de los responsables correspondientes las informaciones necesarias a tal fin.
j.- Facilitar a los directivos y órganos federativos los datos y antecedentes que precisen para los trabajos de su competencia.
k.- Efectuar propuestas de cobros, gastos y de pagos.
l.- Canalizar la generación de los recursos económicos propios de la Federación, potenciando la captación de ingresos por dicho cauce.
m.- Aquellas que le sean asignadas por el Presidente o Presidenta de la Federación Vizcaína de Baloncesto.

## LAUGARREN TITULUA

## FEDERAZIOKO ORGANO TEKNIKOAK

## LEHENENGO KAPITULUA: ORGANO TEKNIKOAK

### 31. artikulua

Bizkaiko Saskibaloi Federazioko organo teknikoak dira federazioaren helburuak lortzeko sortu behar diren zuzendaritza, kabinete, batzorde eta komisioak, eta, zehazki, honako hauek: Kirol Zuzendaritza Teknikoa, Epaile edo Arbitroen Batzordea eta Entrenatzaileen Batzorde Teknikoak.

Horrez gain, beste batzorde batzuk ere izan ditzake, federazioak ondo jarduteko egoki ikusten badira, eta horiek dagozkien araudien bidez garatuko dira.

### 32. artikulua

Helburuak hobeto betetzeko sortzen diren batzorde guztiek euren osaera, funtzionamendua eta eskumenak arautzeko araudiak edo kirol proiektuak proposatuko dituzte. Proposamen horiek federazioaren

## TITULO CUARTO

## ORGANOS TECNICOS FEDERATIVOS

## CAPITULO PRIMERO: ÓRGANOS TÉCNICOS

### Artículo 31

Son órganos técnicos de la Federación Vizcaína de Baloncesto, aquellas Direcciones, Gabinetes, Comités y Comisiones que sea preciso crear para el cumplimiento de los fines federativos, y en concreto la Dirección Técnica Deportiva, el Comité de Jueces y juezas ó Arbitros/as y el Comité Técnico de Entrenadores/as.
Igualmente podrá contar con otros Comités que se estimen convenientes para la buena marcha de la Federación y que se desarrollarán en los Reglamentos que correspondan.

### Artículo 32

Todos los Comités que se creen para el mejor cumplimiento de sus fines, propondrán los Reglamentos y/o proyectos deportivos que regulen su composición, funcionamiento y competencias, que se someterán a la Junta

Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko zaizkio onartu ditzan.

Directiva de la Federación para su aprobación.

## BIGARREN KAPITULUA: KIROL ZUZENDARITZA TEKNIKOA

## CAPITULO SEGUNDO: DIRECCION TECNICA DEPORTIVA

### 33. artikulua

Kirol Zuzendaritza Teknikoa Bizkaiko Saskibaloi Federazioaren administrazio organoa da. Organo horren buru kirol zuzendaria izango du, Bizkaiko Federazioaren presidenteak izendatutakoa.

Kargua bete gabe badago, presidenteak federazioko beste organo edo zuzendaritzako kideren baten esku utzi ahalko ditu eskumen horiek.

Hona hemen kirol zuzendariaren betekizunak: lehiaketen, entrenatzaile izateko ikastaroen eta Arbitroen Batzorde Teknikorako ikastaroen kontrola eta jarraipena, bai eta presidenteak kirol arloan ematen dizkion guztiak, esaterako:

Federazioko estamentu guztien hobekuntza teknikoa arautzea.

Bizkaiko selekzioak prestatu eta antolatzea.

Entrenatzaileen ikastaroak antolatu eta kudeatzea.

Bizkaiko Federazioaren lehiaketa arauak egin eta Euskal Federazioarenekin koordinatzeko proposamenak ikertu eta prestatzea.

*Clinics*ak, campusak, *jamborees*ak, jardunaldi teknikoak eta egoki ikusten diren beste jarduerak antolatu eta kontrolatzea.

Kirol zuzendari teknikoak nahitaez izan beharko du saskibaloiko entrenatzailearen titulua, III. maila edo III. gradukoa.

### Artículo 33

La dirección deportiva es el órgano de organización deportiva de la Federación Vizcaína de Baloncesto. Al frente de dicho órgano se hallará un Director Deportivo nombrado por el presidente de la Federación Vizcaína.

En caso de vacante, el Presidente/a podrá delegar dichas competencias en otro órgano o cargo directivo de la Federación Vizcaína.

Son funciones del Director Deportivo: el control y seguimiento de las competiciones, de los cursos para las titulaciones de entrenadores/as y del Comité Técnico de Árbitros/as, y todas aquellas que en el ámbito deportivo le sean encomendadas por el Presidente/a, como:

Regulación del perfeccionamiento técnico de todos los estamentos federativos.

Preparación y organización de las Selecciones de Bizkaia.

Organización y gestión de los cursos de Entrenadores.

Estudio y presentación de las propuestas para la confección de las Normas de competición de la Federación Vizcaína y coordinación con la de la Federación Vasca.

Organización y control de Clinics, Campus, Jamborees, Jornadas Técnicas y cuantas actividades se consideren adecuados.

